

66.000 enplegu sortzeko

• GARIKOITZ OTAZUA ETA ANTON BORJA •

[EHUKO IRAKASLEAK]

Langabezia masibo iraunkor-
rrak batetik, eta bestetik, baz-
tertze soziala areagotu duten
gero eta lan baldintza eskasagoek, ezta-
baida politiko, sozial eta ekonomikoa
zabaldu dute Europa osoan.

35 orduko asteko lanaldia lortzeko
21eko greba deialdia, Europako zenbait
herrialdetan (Frantzia, Italian, Portu-
galen edo Austrian) jadanik lege ekime-
nak garatzea lortu duen aldarrikapena-
rekin bat dator.

Gure ingurune industrialean, lanaldi
murrizketak enplegu berriak sortzeko,
duen ahalmena aztertzean aktibitate
ekonomiko bakoitzak egun duen lan-
postu kopurua eta urteko batezbesteko
lanorduak kontutan izanik, asteko la-
naldia 35 ordura bapatean eta jarduera
ekonomiko guztietan laburtzeak,
66.400 lanpostu berri ekar ditzake.

Kalkulu hauetan, ez dira kontutan
hartu lanaldi murrizketa egin arren en-
plegu berriak sortzeko zailtasunak
izango lituzkeen zenbait enpresa. Hau
dela eta, nekazaritza eta arrantza sek-
toreak kanpoan utzi dira euren bereizi-
tasunengatik (adibidez, familiarteko
enpresek duten pixua). Zerbitzu sekto-
rean ere, irakaskuntza alde batera utzi
dugu. Era berean, sektore guztietako
langile autonomoak eta 20 langile baino
gutxiago dituzten enpresak ere kendu
dira.

Lehen hurbilketa honen gain zenbait
xehetasun egitea beharrezkoa izango
da jarduera bakoitzaren ezaugarriak
kontuan hartzeko. Esaterako, Makina-
erremintaren eta aseguru sektorearen
artean badaude aldeak: enpresen ta-
mainari dagokionez, langileen treba-
kuntza, aplikatutako teknologiei dago-
kienez, ahalmen esportatzaileari, e.a.
Baina, salbuespen hauek ez dute balio-
rik gabe uzten lanaldi murrizketak en-
plegu berriak sortzeko duen ahalmena.

Enplegu berri hauen kostua, gehien
jota, 278.000 miloi pezeta ingurukoa
da, industri sektorearen batezbesteko
soldata oinarri harturik eta Gizarte Se-
gurantzak kostuak gehituz. Kontuan

izan, enpresa handietako informazioa
biltzen duen soldaten inkesta ofizialen
arabera, aipatutako batezbesteko sol-
data 3 miloitik gorakoa dela, argi eta
garbi neurritz kanpo balioztatua beraz.

Enplegu berri horien eskutik sor dai-
tezken kostuak finantzatzeko aukera
desberdinak ditugu. Alde batetik, sin-
dikatuak defendatzen duten bezala, la-
naldi murrizketa aberastasunaren ba-
naketa hobearrekin lotzen bada eta lan-
gile bakoitzak gero eta gehiago
produzitzen duela jakinik (edo termino
ekonomikoetan esanez, orain arte lor-
tutako produktibitate hazkuntzak kon-
tuan hartuz), enplegu berrien finantza-
penak ez luke soldata murrizpenik eka-
rri behar, orain arteko produktibitate
irabazi gehienak enpresa errentek es-
kuratu baitituzte.

1994tik hona bizi dugun hazkunde
ekonomiko garaian, Barne Produktu
Gordinari dagokionez (hots, sortutako
ondasun eta zerbitzuen balioari dago-
kienez), gure aberastasuna urtez urte
%3,8 hazi da batezbeste, baina sortu
dugun aberastasunak ez du pareko en-
plegu-sorrerarik ekarri, enplegua urte-
ko %2 hazi baita batezbeste, eta, jaki-
na, irabazi horiek ez dute langileen ero-
sahalmena areagotzerik ekarri, aitzitik,
aipatutako epean soldatadunen erosa-
halmena %0,3 jeitzi da.

Dena den, enpresariak kostu igoera-
rik jasan ez dezaten, bilioietako aurre-
kontuak darabiltzaten potere publiko-
ek badute baliabide nahiko lanorduak
murriztuz enplegu duinak sortzen di-
tuzten enpresei zuzendutako dirula-
guntza sistemaren bat eratzeko.

Laguntza hauek, gehienbat enpresa
txiki eta ertainei zuzendu behar litaiz-
kieke, enpresa handiek, oro har, kostu
igoerei aurre egiteko gaitasuna baitute.

Enpresen babeserako diru iturriek
buruz, sortutako enpleguak lortzen di-
tuzten langileak, zergak ordaintzean,
diru iturri berri ere bihurtuko direla eta
gainera langabeziarekin loturik dauden
dirulaguntzak aurrezteak dakartela,
nahiz eta orain, INEMetik langabezia

dauden lau pertsonatik batek soilik di-
rulaguntza lortu.

Iruzur fiskala jazarri beharra ere ezin
ahaztu, batez ere, Hego Euskal Herrian
zenbait ikerketaren arabera urteroko
iruzurra 500.000 miloi pezetatik
600.000ra bitartean baloratzen dela
ikusiz. Era berean, gaur egun, zeharka-
ko zergek (BEZ, zerga bereziek...) zerga
zuzenek (PFEZ, sozietate zergak...) bai-
no pixu handiagoa duela aintzat hartu-
rik, egoera hau aldatuko lukeen erre-
forma fiskala ere beharrezkoa da, zerga
zuzenei garrantzi handiagoa emanaz
eta batez ere, errenta espekulatzaileak
zergapetuz.

Azkenik, 35 orduko lanaldiak enpre-
sa barneko lan antolaketa-berrikun-
tzak eta baita ekipamenduen erabileren
aldaketak ekarriko ditu. Baina aldibe-
rean, lanaldia laburtzeak eta aberasta-
suna hobeto banatzeak dakarten gizar-
tearen kohesio eta elkartasuna zutabe
sendoak dira sare produktibo hobea
lortzeko. Horrela, gure industriaren
goi-mailako teknologierabilpen gabe-
zia eta honekin loturik doan langileen
trebakuntza apala gainditzeko atea
zabal daitezke. Euskal Erkidego Auto-
nomoan, esate baterako, enpresa in-
dustrialen %80 inguruk ez dute goi-
mailako teknologiarik erabiltzen eta
hauen langileen %65ek ez du batxiler-
gorik.

Behar besteko eta kalitateko enple-
gua sortzeari lehentasuna ematea eta
lanaren prekarietatea geldiaraztea pre-
miazkoak dira, behin konfiantza giroa
berreskuratuta gure produktuen kali-
tatea hobetzeko. Bai lanaldi murrizke-
ta, bai produkzio malgua eta etengabe-
ko benetako trebaketa, sare sozial eta
produktiboa indartzeko mailak dira.

Hau guztia, langabezia estrukturala-
ri aurre egiteko beharrezko diren gaine-
ratiko ekintzak alde batera utzi gabe
egin behar da, batipat, politika indus-
trial eta teknologiko aktiboekin batera,
etorkizunerako jarduerak sustatuz eta
berindustrialtze selektiboa erraztuz.
Prest al gaude?

hirusta... 

JASONE OSORO

Mutil dantza

Edozein larunbat gaue-
tan, edozein herritako
edozein tabernatarar-
tuz gero, mutil kuadrilak barra-
raren bueltan ikus daitezke gara-
gardo bana eskuetan dutela eta
aurrean dantzan dagoen neska

taldeari begira.
Dantza egitea nes-
ken kontua omen
da, femeninoa. Ba-
lleta egiten duten
mutilak «mari-nes-
kak» omen dira, leo-
tardo zuriekin ba-



rregarriak daude eta airean birak
eta jauziak egiten dituztenean,
are erridikuloagoak begitantzen
zaizkigu. Garai batean, errome-
rietara joaten ziren gazteak *aga-
rrauen* tartearen zai egoten ziren,
gustuko neskari gerriatik heldu
eta bularraren kontra estutuz go-
xo-goxo egoteko. Gaur egun, *ba-
kalao* musikaren labirintioan ere
bat baino gehiago zorabiatuko da
seguruena, baina mutil euskal-
dunak, berez, oso dantza gutxi
egin izan du. Nire herrian euskal
dantza talde bat dago eta mutil
falta urte askoan izan da arazoa.
Horregatik, harritu
egin nau Txema Morales dantza-
riak egindako adierazpenak. Bere
hitzetan, «Bizkaiko dantzak oso
birilak dira». Ez dakit zer esan
nahi ote duen *biril* adjetiboare-
kin. Makilak eta ezpatak
erabiltzen dituztela ere aipatzen
du eta beharbada horrek izan
dezake eragin inkonsistente
falikoren bat. Batek daki!
Edozein modutan, gauza
gutxi dago gorputza graziaz mu-
gitzea baino erakargarriagoa de-
nik. Nor ez da noizbait
maitemindu solturaz, majiaz
eta elegantziaz musikaren
erritmoan sorgintzeko
gai den pertsonaren
besoetan?

...hemeroteka

EL PAIS

Mezu kontraesankorrek

[EDITORIALA]

Euskal nazionalistek
zazpi hilabete behar
izan dituzte Euskal He-
rritarrok konbentzitze-
ko eta talde horrek «bi-
de politiko eta demo-
kratikoaren aldeko apus-
tua» egiteko. Ez dirudi
gauza handia, zeren
eta pentsaezina da edo-

zein alderdik kontra-
koa esatea: bide biolen-
to eta antidemokrati-
koen aldeko apustua
egiten duela, alegia.
Nolanahi ere, esperien-
tziak erakusten du sis-
temaren aurkako inda-
rren integratzea termi-
nologia aldaketa hutse-
tik hasten dela.

(...)Gauzak aurrera
egin dezan, beharrez-
koa da nazionalismo
demokratikoak buru-
rik ez galtzea. Mayor
Oreja Gernikan harri-
katzea normala dela
esan duen buruzagi

horri ez jarraitzea. Eta
EHri gogoraraztea eus-
kal herritar guztiak ez
direla nazionalistak,
ezin dela herritarren
%45 kanpoan uzten di-
tuen aberririk eraiki.

EL CORREO

Konpromisoa

[EDITORIALA]

(...)Legegintzaldirako
akordioaren testuak
«Euskal Herriak bizi
duen gatazka politi-
koa» aipatzen duen

momentutik, eta «pro-
zesu politikoa hauste-
ra doazen ekimenen
aurrean prozesua fin-
katzearen alde» ager-
tzen den une beretik,
garbi dago akordio
nazionalista gobernu
gehiengoa lortzetik
urrunago doala.
Lehendakariak akor-
dioa «guztientzako»
dela berretsi du. Baina
goian aipatutako ter-
minologiak erabiltze-
an, legegintzaldirako
ituna lbarretzek aipa-
tzen duen elkarrizke-
tatik aldentzen da (...)

garazi

Pauso historikoa

[EDITORIALA]

Euskal Herriko azken
25 urteotako historia
zehaztasunez aztertu
duen edonork badaki,
jakin, atzo ezker aber-
tzaleak, EAJk eta EAK
sinatu zuten legegin-
tzaldirako akordioa
historikoa dela. Heme-
rotekak ikusi besterik

ez dago; nola geunden
orain 22 hilabete edo
urtebete, eta nola gau-
den egun; ETAren su-
etena kontuan izanik
eta Lizarra-Garazi
oinarritzat hartuta(...) Atzoko
sinadura aurrerapauso handia
da, baina oraindik
urruti daude bertan
zehazten diren helbu-
ruak. (...) Beraz, sina-
tzaileek eta akordiora
hurbildu nahi dutenek
lanean jarraitu behar
dute herrigintzan, ins-
tituzioetan eta institu-
zioetatik kanpo.